

ANGELUAK






5.

DEF. : [AB] eta [AC] jatorri-puntu bereko bi zuzenerdiek

\widehat{BAC} angelua definitzen dute.


-A puntua angeluaren **erpina** da,

-[AB] eta [AC] angeluaren **aldeak** dira.



PROP. : **Erpinez aurkako** angeluek neurri bera dute :

\widehat{TCA} eta \widehat{BCS}



DEF. :

-**Angelu betegarrien** baturak 180° balio ditu.

-**Angelu osagarrien** baturak 90° balio ditu.

PROP. : Zuzen batek bi zuzen paralelo ebakitzen baldin baditu, orduan :

- **txandakako barne angeluek** neurri bera dute (\widehat{TCA} eta \widehat{CAU}) (\widehat{SCA} eta \widehat{RAC})

- **txandakako kanpo angeluek** neurri bera dute (\widehat{BCS} eta \widehat{RAD}) (\widehat{TCB} eta \widehat{DAU})

- **aldeberako angeluek** neurri bera dute (\widehat{BCS} eta \widehat{CAU}) (\widehat{TCB} eta \widehat{RAC}) (\widehat{TCR} eta \widehat{RAD}) (\widehat{SCA} eta \widehat{DAU})

1. ariketa : (CA) zuzenak (TS) eta (RA) zuzen paraleloak ebakitzen ditu. \widehat{DAU} kalkulatu.

Aterabidea : (CA) zuzenak (TS) eta (RA) zuzen


paraleloak ebakitzen ditu beraz \widehat{TCA} eta \widehat{CAU} , txandakako barne angeluek neurri bera dute, orduan

$\widehat{CAU} = \widehat{TCA} = 40^\circ$.

\widehat{DAU} eta \widehat{CAU} angelu betegarriak dira beraz

$\widehat{DAU} = 180^\circ - \widehat{CAU} = 180^\circ - 40^\circ = 140^\circ$

$\widehat{DAU} = 140^\circ$



PROP. : Zuzen batek **bi zuzen** ebakitzen baldin baditu eta txandakako barne angeluek edo txandakako kanpo angeluek edo aldeberako angeluek neurri bera **baldin badute** orduan **bi zuzen horiek** paraleloak dira

2. ariketa : (CA) zuzenak (TS) eta (RA) zuzenak ebakitzen ditu. (RU) eta (TS) paraleloak direnez erran.

Aterabidea :

\widehat{RAC} eta \widehat{CAU} angeluak betegarriak dira beraz

$\widehat{CAU} = 180^\circ - \widehat{RAC} = 180^\circ - 135^\circ = 45^\circ$.

(CA) zuzenak (TS) eta (RA) zuzenak ebakitzen ditu :

\widehat{TCA} eta \widehat{CAU} txandakako barne angeluek ez dute neurri

bera beraz (RU) eta (TS) ez dira paraleloak

